

PRENTSA OHARRA

Hiru fasetan banaturiko prebentzio plana aurkeztu du Oñatiko Udalak Usakorako

Martxan dira lehen bi faseak, eta uztailaren 17an ekingo zaio hirugarrenari. Osasun baldintza prebentiboak bermatzeko eta Covid-19aren kutsadura ekiditeko bitartekoak eskaintzea da udalaren asmoa

Covid-19ak eragindako testuinguruan, koronabirusaren kutsadura ekiditeko eta osasun baldintza prebentiboak bermatzeko helburuz, Usakorako prebentzio plana aurkeztu du Oñatiko Udalak. Zehatz esanda, hiru fasetan banatu du neurri sorta -jada martxan dira lehen bi faseak-. “Ezohiko bainu denboraldia da aurtengoa. Osasun krisiak eraginda, ezin daiteke beti moduko zerbitzua eskaini. Hori, argi izan dugu hasieratik, eta, besteren artean, sorosle gehiago, osasun prebentziorako neurri bereziak... jarri ditugu. Dena den, uste baino jende gehiago dabilenez, bestelako neurriak hartu beharrean gaude”, azaldu du Izaro Elorza Oñatiko alkateak. Ondo bidean, irailaren 13ra bitartean legoke prebentzio plana martxan.

Hain zuzen ere, ekainaren 22an ekin zitzaion lehen faseari. Batetik, sorospen zerbitzua abiarazi zuen Oñatiko Udalak. Aurtengoan, gainera, zerbitzua indartu du: ordutegia zabaldu du -15:00etatik 21:00etara bitartean- eta bi sorosle egongo dira 16:00etatik 20:00etara. Bestetik, koronabirusagatiko kutsatzea ekidin guran, prebentzio neurrien zaintzarako zerbitzua jarri da martxan -bi udaltzain laguntzaile kontratatu dira, txandakako lanerako-. Bukatzeko, Usako inguruan aparkaturik dauden autoen pilaketak saihesteko neurriak ere hartu ditu Oñatiko Udalak. Hainbaten artean, arreta berezia du jarria mugikortasun jasangarriaren sustapenean -Herribusaren erabilera sustatuz, ordutegi zabalagoa eskainiz...-; aparkatzeko debekua gogorazten duten seinaleak jarri ditu Olateko errepidean; ibilgailurik aparka ez dadin bitartekoak jarri ditu Usako baserriaren parean, Zuazolako zubian eta Olateko errepide bazterrean; Munazategiko zein hilerriko aparkalekuak seinaleztatu ditu autoak bertan aparkatu eta bainu gunera oinez joateko; bainu lekuaren kokapenari eta noranzkoari dagozkien seinale gehiago jarri ditu; eta arauen zein jarraibideen berri emateko informazio bitartekoak jarri ditu Usakon bertan.

Era berean, hasia dago bigarren fasea -uztailaren 12an ekin zitzaion-. Gauzak horrela, bainu dinamikorako daude egokiturik ur-putzua eta haren inguruko plataforma -15 pertsonako aforoa dauka-. Beraz, ezin daiteke toailarik jarri, ezta egonaldi luzerik egin ere. Gainera, erabiltzaile kopuru handiaren eraginez, beharrezko balitz, ordu laurdeneko txandak antolatuko lirateke ur putzuan

bainua hartzeko -30 pertsonakoa izango da txanda bakoitza-. Ostera, seinaleak jarri dira ur-putzuko sarbideetan eta bertara iristeko dagoen arrapalan -bitan zatitu da, beheazko eta goranzko norantzetan-. Eta ilara egiteko markak ere egin dira.

Bestalde, hirugarren fasea abiaraziko da uztailaren 17an. Zehatz esanda, txanda sistema jarriko da belardian: bi txanda izango dira arratsaldean -15:00etatik 17:45era bitartekoa, lehena; eta, 18:15etik 21:00etara bitartekoa, bigarrena-. Bada, lehen txanda bukatzean, erabiltzaileek aisialdi gunetik irten beharko dute bigarren txandakoei lekua egiteko. Hala nola, asteburuetan, belardia 14:00etan hustu behar izatea ekarriko du horrek, lehen txandakoak sar daitezen. Hirugarren fasetik aurrera, gainera, asteburuetan eta jai egunetan, langile bat gehiago egongo da eremua zaintzen 14:00etatik 21:00etara bitartean.

“Badakigu aurtengoa urte berezia dela Oñatin. Igerileku faltan, beharrezko ikusi genuen Usakoko bainu gunea baimentzea. Poliki-poliki joan gara neurriak hartzen, bakoitzaren ondorioak aztertuz eta egoerari ahalik eta egokien erantzunez. Aipatu beharra dago oso kontuan hartu ditugula auzotarren -eta, oro har, herritarren- ekarpenak, batez ere, aparkalekuari loturikoak. Finean, geure eguneroko pertzepzioaz gain, beharrezkoa da haiena, benetako arazoak, konpondu beharrekoak, ondo egindakoak... identifikatzeko. Eta uste dugu planean jasotako neurri sorta honekin bainuaz gozatu ahal izango dugula aurtengo udan ere”, dio Oñatiko alkateak.

USAKO AISIALDI GUNEA
ZONA RECREATIVA



OÑATI
dabilen herria

BELARDIA

egonaldi dinamiko baterako gunea izango da.

EL PRADO
será zona para una estancia dinámica.

 **Bi txanda** antolatuko dira. Dagokion txanda amaitu ondoren, belardia utzi behar da.
Se organizarán dos turnos. Una vez finalizado el turno correspondiente hay que abandonar el prado.

14:00-15:00 GUNEA HUSTU EGINGO DA <i>Se vaciará el espacio</i>	1.TXANDA 15:00-17:45 <i>1º turno</i>	2.TXANDA 18:15-21:00 <i>2º turno</i>
--	--	--

 **Zaindutako eremuak** dira. Egin kasu uneoro kontroleko langileen eta sorosleen argibideei.
Son zonas vigiladas. Haz caso en todo momento a las indicaciones del personal de control y las/os socorristas.

 **Espazioa partzelatu da. Errespetatu espazioa eta ez inbaditu aldameneko lursailak.**
Se ha parcelado el espacio. Respétalo y no invadas las parcelas colindantes.






